

MISCELÁNEA.

Vemos con satisfaccion que los periódicos de Italia continuan haciendo elogios de nuestro querido paisano y amigo el baritono Sr. Tabuyo, á quien cariñosamente felicitamos.



El dia 23 del corriente asistió nuestra Excma. Diputacion provincial, siguiendo tradicionales y siempre loables prácticas, á la Misa del Espiritu Santo, que se celebró en la iglesia parroquial de Santa Maria de esta Ciudad, para impetrar del Cielo las luces necesarias, á fin de que resplandezca el mayor acierto en cuantas resoluciones adopte el Cuerpo provincial en las sesiones que aquel dia se inauguraron.

SECCION AMENA.




1.º SOMAKETA.

Dira *bata ta iruba*
 Pisti *izugarria*;
Biya ta iruba-kiñ
 Dezu *iduria*;
 Miñ *zorrotza ematen*
 Dubena *guztia*.

(Askantza *urrengo lumero edo liburuchean.*)



ESKUTITZ BAT BERE ERANZUERAREKIN.



Artikasle batek echera
 Izkribatu zuen onela:
 Neurtakindeak¹ ikastera
 Zijoala, eta, lasterka,
Kortazar baten bear zala,
 Zazpi zatian zegoala,
 Ta bakoitza iruna pezeta
 Ogei ta bat bial zitzatela.
 Aitak kart' ori irakurririk
 Izkribatu dio bertatik:
 —Lenengo: seme, neurtakinderik
 Ez dezu ikasi bearrik,
 Eta bigarren, *Kortazar-ik*
 Ez da zazpi zatikorik;
 Ez uste beraz neregandikan
 Jai oietako dirurik.

MIGEL ANTONIO IÑARRA.

1.^{ko} SOMAKETAREN ASKANTZA:

Somaketari eziñ
 emanikan antza
 buruban izandu det
 makiña bat dantza:
 Nastu šamarra zala
 daukat nik zalantza
 izanik somaketa
 neretzat *Arantza*.

MARCELINO SOROA.

(2) Matemáticas.

Datorrenean.
 —Eskerrikasko, Andrēs,
 Zure pachara
 Juandan urte t' erdian
 Orretan zara...
 —Zér naizu bada,
 Egiti bat besterik
 Onetanche ezagun da
 Ni ez naizala.

MIGUEL ANTONIO IÑARRA.

II TA III.^{garren} SOMAKETAK.

Lau *azken-letrak* dira
 Gauza guztiz-mia;
Azken ta bi leenenak
 Oso pozgarria;
 Eta *guzti-guztia*
 Izen chit maitia.



Bi-gar arkitzen dira
 Lenengo biyetan;
Biya berriro dator
 Azkenengoetan;
 Guztiya loirik gabe
Iru itzgaiyetan.

(Askantzak *urrengo lumero edo liburuchuan*),

SECCION AMENA.**NAGUSIYA TA MORROYA.**


—Mutill, eche ontatik
joan ari lenbailen.

—¿Zergatikan?

—Zergatik

beti dek eraten
ardua, ¿zér uste dek
ez detala ikusten?

—Bañan ikusten ez du
noiz egarri naizen.

**LENBIZIKO ESKUTITZA.**

Petraren gizon-gaya
izanikan Simon,
t' arkiturik kanpuan
izkribatu ziyon,
esanik bukaeran
karta barrenian
«etzazula au iriki
amaren aurrian.»

MARCELINO SOROA.

SOMAKETEN ASKANTZAK:

II.^{garrena} MARIA.—III.^{garrena} GARBIYA.



SAGARDOTEGIYAN.



—¿Denbora asko alda zai
agola Benardo?

—Bai motell.

—¿Zenbat bada?

—Sei baso sagardo.

MARCELINO SOROA.



IV TA V.^{garren} SOMAKETAK.

Lenen ta iruba amona
Santaren izena,
Biya eta iruba
Mandoan daudena,
Chomiñ deitzen danean,
An da laugarrena;
Izena dezu dana
Erri-on batena.



Choriyak maite dute
Neronen erdiya;
Ichasoak ugari
Du beste alderdiya;
Beti begira nago
Aurrean Franziya:
¿Nórk ez du somatuko
Nere izen guztiya?

(Askantzak urrengo lumero edo liburuchotan.)



VI, VII TA VIII.^{garren} SOMAKETAK.

Bata *billa* *badezu*
Lenengo *ta* *biyan*
Eta *irugarrena*
Asunen *erdiyan,*
Eta *banaren* *biya*
Laugarren *tokiyan,*
Irakurriko *nazu*
Ni *naizan* *guztiyan.*



Bata *ta* *biya* *beti* *dauzkatzu*
Iruten *dakienakin;*
Ezpadauzkatzu *lauba* *ta* *bosta*
Osasunarik *zuk* *eziñ:*
Oso-osorik *arkiko* *nazu*
Iru *ta* *beste* *birekin.*



Zenbait *geiago* *kendu,*
Ni *naiz* *andiyago;*
Zenbait *geiago* *eman*
Nazu *chikiyago;*
Lurrean *oña* *sartu*
Zayonik *badago,*
Ni *nor* *naizan* *chit* *errez*
Asmatuba *dago.*

(Askantzak *urrengo* *lumero* *edo* *liburuchoan.)*

SOMAKETEN ASKANTZAK.

IV.^{garren} ANDOAIN.—V.^{garren} ONDARRABIYA.

—Bota bostekuori,
baitare besuak,
ez arritu, gogotik
iñuri malkuak

Orla, bai, zergatik gaur
izango da, jauna,
emen arkitzen geran
azkeneko eguna.—

MARCELINO SOROA.



DONOSTIKO NESKACHA GAZTIAK.

Donostiko neskachak
Ditugu ikusten,
Osoro apaindurik
Nola diran jatzten:
Ipurdi konkorrakin
Dirade ibiltzen,
Ez dute bada oyek
Soldata asko artzen,
¿Nondikan dute, beraz,
Orrenbeste sortzen?

Iñoiz ikusten dira
Neskacha gaztiak,
Kameluaren gisa
Konkorrez betiak;
Ikustekuak dira

Oyen koloriak,
Nayago dute kanpoz
Egon dotoriak,
Naiz arkitu barrendik
Plakiyak botiak.

Eziñ fiyo liteke
Orrelakoakiñ,
Biar baño geiago
Dabilkitenakiñ:
Ni, beintzat, ikaratzen
Naiz neskach oyekiñ,
Nayago det mutill zar
Gelditu beñepiñ,
Eta ez deskuidatu
Orlako batekiñ.

MUTILL-ZAR BATEK.

SOMAKETEN ASKANTZAK:

VI.^{garrena} BATASUNA.—VII.^{garrena} IRUTASUNA.—VIII.^{garrena} ZULOA.

NESKA ZAR BATI.

Norbait zubela arrapatuko
 Gaztetan zuben pensatu,
 Baña jirarik alde guztiyak
 Iñor etzuben billatu;
 Orren ichurak mutill guztiyak
 Oi zituben ikaratu:
 Sorgiñ-madama lizundu ori,
 ¿Zeñek naiko zuben artu?

Sudurra dauka izugarriya,
 Dirudi achur-kirtena,
 Kokotzak berriz ikarutzen du
 Donostiko jende dena:
 Ille zimurra, begi sartubak,
 Gorputza berriz sei kana,
 Begiratu batian diruri
 Akelarko kapitana.


MUTILL-ZAR BATEK.



I. ko SOMAKETA.

Gindajale zozoan
 Dezu *bat* eta *bi*;
 Nayeran begiratu
 Irugarrenari:
 Iru itzgai chikiyak
 Bildurik alkarri,
 Igerriko diozu
 Erres guztiyari.

(Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.)

SECCION AMENA.**KAITANO ITZONTZI.**

Berriketan zituben
 Kaitanok gloriyak,
 abo zabal artatik
 botarik lodiyak.
 —Aurten negu gogorra
 zikan gure erriyak,
 pozik ez geranian
 an urtu guztiyak.
 Bost kana elur egiñ dik
 denbora luzian;—
 tabernan esan zuben
 lagunen artian.
 Ta batek galde ziyon
 gezurtu nayian:
 —¡Arrayia! (Bost kana?
 ¿nolá, zabalían?)

MARCELINO SOROA.

I.^{ko} SOMAKETAREN ASKANTZA:
 GIZONA.



Con motivo de los días de S. M. la Reina Regente, nuestro Ayuntamiento tomó el plausible acuerdo de repartir el 24 del actual, en bonos de pan y carne, 1000 pesetas á los pobres.



En la noche del 28 del corriente dió la Sociedad Coral un brillante concierto en el Teatro principal, demostrando los grandes progresos que ha hecho esta última temporada, y que nos parecen segura garantía del triunfo que en breve ha de alcanzar en París, como vivamente deseamos.



Hemos tenido el gusto de ver la magnífica medalla que la *Société française d'archéologie* ha regalado á nuestro distinguido amigo y colaborador el Excmo. Sr. D. Antonio Bernal de O'Reilly, como representante que fué de la Real Academia de la Historia en el Congreso que aquella Sociedad celebró el año último en nuestro país, y del cual nos ocupamos oportunamente, con la debida extension.

En el anverso de dicha medalla especial, única en su clase, y perfectamente acuñada en la casa de moneda de París, aparece el busto del célebre Caumont, fundador de la Sociedad de anticuarios de la Normandía é introductor de los congresos científicos en Francia; y en el reverso figura la siguiente inscripcion: «S. Exc. Don A. Bernal de O'Reilly, en souvenir de son concours pour le Congrès de Bayonne.—1888. —*Société française d'archéologie pour la conservation des monuments historiques.*»

SECCION AMENA.



I.º MUTADI EDO ISITZA.



Askantza urrengo lumero edo liburukoan.



El día 4 del corriente tuvieron lugar los exámenes de fin de curso en la Academia particular de música para ambos sexos, que dirige nuestro apreciable amigo D. Bonifacio de Echeverría.

Componían el tribunal los Sres. Albeniz, Echeverría (D. José) y Garmendia; y de los 74 alumnos examinados, 28 obtuvieron la nota de sobresaliente, 20 la de notable, 19 la de bueno y 7 la de aprobado.

Felicítamos al Sr. Echeverría por tan brillante resultado, agradeciéndole la fina invitación que se sirvió dirigirnos para asistir á dichos ejercicios.

SECCION AMENA.



II.^{garren} SOMAKETA.

Ardiyaren izketan
 Daukat asiera:
 Letra baten izena
 Bigarren sarrera:
 Iruba nai badezu,
 Begira lurrera:
 Nigana datoz asko
 Udan sendatzera.

(Askantza urrengo lumero edo liburuchuan).

I.^{ko} MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA:

Udanjendea atsegiñ dabill alderdi oetan.



SECCION AMENA.



MOSKOR BIREN BERRIKETAK.

Denbora pasagarri
 Bertso bi jartzea,
 Chomiñ nere laguna
 Artudet ustea.
 Picharra ardoz beterik
 Berotzeko estea,
 Ez dezagun iduki
 Barrera tristea,
 Ta kezkaz betea,
 Egokia izango det
 Lenbailen astea.
 —Ongi pensatutzen dek,
 Bañon nik ez jakiñ
 Bertsoak konpondutzen
 Nere lagun Joakiñ;
 Picharreko ardoa
 Badijoak ariñ,
 Estuasunonetan
 Ez dakit zér egiñ,
 Egiñtzak alegiñ
 Guchi guchika eraten
 Akaba ez dediñ.
 —Joakiñ, akabatzean,
 Picharreko ardua,
 Pagatzeko atera
 Bearda dirua.
 Zeren billatu dedan
 Galtzetan zulua,
 Galdu bear dirana

Gaurko nere lua,
 ¡Au paraderua!
 Ona geldituko dek
 Echeko atsua.
 —Ardoa eran eta
 Ez pagatutzia,
 Nere ustetan Chomiñ
 Ez dek kortesia:
 Nik oraiñ pagatuta
 ¿Naidek i uztia
 Echera eramaten
 Osorik poltsia,
 Ta diru guztia?
 Ez nauk engañatuko
 Maliziz josia.
 —Ik oraiñ pagatuzak,
 Bada dek egiya,
 Patrikaran dedala
 Nik zulo andiya.
 Gero emango diat
 Zor dedan guziya
 Jakiñ ez dezan iñork
 Gure istoriya;
 Pagazak guztiya
 Onda artutzeko
 Echeko bidia.
 —¿Billatuko diagu?
 —¡Au dek komedia!

JOSÉ AGUSTIN URREIZTIETA-KOAK.

II. garren **SOMAKETAREN ASKANTZA:**
BETELU.

